

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LOKALAK, SALTOKIAK ETA ENPRESA TXIKIAK INSTALATZEKO BTAEAREN ARABERAKO DOKUMENTU	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0888		
Lanbide-arloa	ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
Lanbide-eremua	Instalazio elektrikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketa eta mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Bulego-, merkataritza- eta industria-eraikinetako instalazio elektrikoak	Iraupena	230
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lotura-instalazio elektriko muntaketa eraikinetan (Zeharkakoa) Barruko instalazio elektriko muntaketa eta mantentze-lanak		60
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa instalazio elektriko muntaketan eta mantentze-lanetan (zeharkakoa)	Iraupena	90
			30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0821_2 gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Bulego-, saltoki eta industria-eraikinetako barruko instalazio elektriko dokumentu teknikoak prestatzea, indarrean den araudi elektroteknikoa aplikatuz.

EI1.1 Bulego-, saltoki- eta industria-eraikinetako barruko instalazio elektrikoetako elementuen magnitude elektrikoak eta neurriak kalkulatzeko, kalkulu elektronikoaren lege eta arauak aplikatuz.

EI1.2 Bulego-eraikin bateko eta industria bateko barruko instalazio elektriko bat izanik, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, eraikuntza-planoetatik eta beharizan energetikoetatik abiatuz eta indarrean den araudi elektroteknikoa aplikatuz:

- Zehaztea nola banatuko diren kargak eraikinean, BTA Ea aplikatuz.
- Lotura-instalazioaren eta eraikineko zirkuituen eskemak, eroaleen sekzioa eta instalazioaren zati bakoitzeko kanalizazioen neurriak grafikoki irudikatzea, karga total edo partzialen arabera, BTA Eko irizpideak aplikatuz.
- Argi-puntuak zehaztea, lokalen jardueraren arabera argiztapen-beharrak kontuan hartuta eta programa informatikoak erabiliz.
- Lotura-instalazioko mozketan- eta babes-elementuen eta eraikineko banaketa- eta babes-kaxen ezaugarriak zehaztea, BTA Ea aplikatuz.
- Kontagailuen armairuaren kokapena eta konfigurazioa zehaztea, BTA Ea aplikatuz.
- Instalazioko elementuen ezaugarriak zehaztea, instalazio-sistemaren eta lokalaren jardueraren arabera, BTA Ea aplikatuz.
- Linea nagusiaren lur-konexioko sistemaren ezaugarriak eta lur-konexioaren deribazioak zehaztea, BTA Ea aplikatuz.
- Lortutako ezaugarriekin bat datozen instalazio-elementuak hautatzea, fabrikatzaileen katalogoak erabiliz.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostena prestatzea.

EI1.3 Bulego-, industria- eta saltoki-eraikinetako instalazioetarako BTA Earen arabera behar diren dokumentuak betetzea, dokumentu ofizial baliokideak erabiliz (diseinu-txosten teknikoak, instalazioaren ziurtagiria, eskema haribakarra, krokisa, kokapen-planoak, erabileraren eta mantentze-lanen jarraibideak, etab.).

Edukiak

1. Instalazioen dokumentu tekniko eta ekonomikoak.

- Bezeroarekin batera adostutako ezaugarri tekniko eta funtzionalak (indarrean den araudiaren esparruan, eskaintzan edo formalizatutako kontratuan jasoa, kondizio ekonomikoak barne).
- Luminaria-motak eta haien banaketa zehaztea, argi-intentsitate orokor eta fokalizatua kalkulatu, instalazio-motaren eta lokalaren jardueraren arabera, software espezifikoak erabiliz.

2. Instalazioei buruzko dokumentu tekniko eta administratiboak prestatzea.

- Saltoki-, bulego-, eta industria-eraikinetako instalazio elektriko baten magnitude elektrikoaren kalkulua, BTAEan ezarritako prozeduren arabera, kalkulu elektroteknikoaren arauak aplikatuz.
- Kargak banatzea zentroetan, nabeetan edo eraikinetan, BTAEaren arabera.
- Diseinuaren txosten teknikoa.
- Instalazioaren ziurtagiria.
- Eskema haribakarra.
- Ekipo eta makinaren erabileraren eta mantentze-lanen eskuliburuak.
- Proiektuaren arabera gauzatzeko ziurtagiriak.
- Bisa profesional kolegiatuak.
- Obra-baimenak.
- Enpresa hornitzaileek eskatutako eskakizunak eta txostenak.
- Autonomia-elkarteen dokumentuak eta eskakizunak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0887 gainditua izan behar du: Barruko instalazio elektrikoaren muntaketa eta mantentze-lanak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Behe-tentsioko instalazio elektrikoaren muntaketa eta mantentze-lanak.